

@Euskal Hiria Orain: iragana eta geroaren artean



Igor Calzada °

Aldiri, 2012, III, 11, 38-39 ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 2012-09-16 / Onarpen-data: 2012-09-24

Iragana eta geroaren artean oraina dago. Eskuardean kudeatu dezakeguna. Gainontzeko guztia ameskeria eta dogma da, nonahitik ere datorrela. Baina oraina burutzeko, iraganak erakutsi diguna tentuz aztertu eta geroaren lorratzek nora garamatzaten ikusmiratzeko begirada gardena behar dugu. Dogmetatik at, pentsamendu, adierazpen eta ekintzarako askatasunean oinarritutako begirada eta azterketa zientifikoan oinarritutako derrigortzean alegia. Eta, bestalde, zubiak eraiki eta aniztasunean akordioak erdiesteko ardura dugu guztiok ere. Euskal Hiria, izan ere, okerreko bidetik eramandako marka instituzional bat izan delako; orain aldiz, guztion artean bere lekuan kokatu behar dugu. Eta, dakigun bezala, hiria ez da inorren jabetza: guztiok kabida dugun espazio anitza da. Elkarbizitza da, lehenik eta behin, Euskal Hiriaren nortasun zeinua, eta, gero, ardura zientifiko, sozial, ekonomiko eta komunitario horretatik abiatuta *Euskal Hiria Orain: iragana eta geroaren artean* eraiki behar dugu.


Aurtengo azaroaren 26 eta 27an Bilboko Euskalduna Jauregian izango den Euskal Hiria kongresua, hartara, inflexio-puntu bat izan liteke. Batzuei behintzat, garrantzitsuak zitzaizkigun aldagai askoren norabidea aldatu egin delako (bakegintza, krisialdia, lurraldearen eredu konkretu baten porrota, paradigma ekonomiko/produktibo/energetikoaren aldaeraren behar urgentea, hiri-erregioaren presentzia lurraldearen plangintzaren debate akademikoan...). Eta haize berriei lekua egin behar zaielako, edukiz bai eta formaz ere.

Alegia, 11 urte luze pasa dira Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendua eta Uren Sailburuordetzak Euskal Hiria marka instituzionalizatu eta bere egin zuenetik. Beste garai batzuk ziren, eta, agian, hazkunde ekonomikoaren pentsamoldearekin jokatz, *top-down* eta baliabideak modu jasanezinean ustiatzeko inertziak eredu neoliberal bat jarri zuen besterik ezean, determinismo instituzional batetik abiatuta. Dagoeneko, errealitatea iritsi da iritsi behar zen lekura, eta askori gustatzen ez zitzaizgun eredu desarrollista eta neoliberalaren azken egunak dira. Erronka, dena den, ez dugu samurra: berezko lurralde eredu orekatu, ireki, jasangarri eta anitza errealismoz eraiki beharra

dugu. Jarrera kritiko hutsetik, ekinera egin behar dugu jauzi, errealitatearekin tupust egin gabe. Izan ere, Euskal Hiria jada nazioarteko komunitate zientifikoak kontsentsu handiz onartu duen hiri-erregioaren parametroetan sartzen da. Eta, hiri-erregioak, modu askotakoak daude. Beraz, teoria kritikoaren oinarritzko printzipio metodologikoa azpimarratzea da lehenengo egin beharra: existentzialismo antzu baten debate mugagabeen egon baina, errealismoz ekin diezaiozun nahi dugun hiri-erregioa egituratzeari, horrek nazioarteko komunitatean bere lekua eta berezko ahots propioa izan dezan, lurralde-berrikuntza eta antolamenduaren praktika erreferentziala bihurtuz. Izan ere, errazena zera da, markak kritikatzeari. Zailena, ekinetz, proiektu bidez, Euskal Hiria kontzeptuaren potentzialtasuna bere lekuan birkokatz, berezkoak zaizkigun elementuekin, marka berria gure egitea da.

Laburbilduz, Euskal Hiriak, **hiri/lurralde/gizarte eredu jakin baten marka instituzionala baino, Euskal Herriaren aniztasuna bermatuz eta berau balioan jarritz, analisi prospektibo eta parte-hartze prozesuaren bidez, lurralde-antolamendua eta herrigintza egiteko kudeaketa-kultura eta eredu berri bat behar du izan aurrerantzean.** Kudeaketa-eredu horrek lurralde-antolaketarako gidalerro estrategikoak markatu beharko lituzke, eragile ezberdinen parte-hartzearekin erdietsiak, dagoeneko negoziatzeak diren printzipio aurrerakoi batzuetan oinarriturik egon beharko lirakekeenak. Euskal Hiria ezin da copy-paste eredu bat izan. Baina errealitatea bere osatasunean hartuta ere; alegia, krisialdia errealismoz erakusten ari zaigun benetako aurpegi horren gainean ezagutza zientifikoa bildu eta erabaki egokiak hartzeko ardura plazaratzea da aurtengo kongresuaren ardatz nagusia.

Eta alde horretatik, hitzaurre hanpatu honen ostean, aurtengo Euskal Hiria 2012 kongresuaren zuzendari zientifiko gisa, gaiaren inguruan gabiltzan gizabanako nahiz erakundeen parte-hartze deialdia egin nahiko nuke. Lau alorretako pertsonak elkarretaratuz: (a) administrazio publikoa, (b) enpresa eta eragile sozio-ekonomikoak, (c) akademia eta komunitate zientifikoa eta (d) gizarte zibila.



Irudia: Unai Fernandez de Beñotio

Aldiri aldizkariko kide gisa, batzorde zientifikoko kidea alegia, ene helburu garbia, komunitate zientifikoa barrena, eztabaida ireki eta errespetuzkoa bideratzeko deialdia eta gonbitea lutzatzea da. Horretarako, honako gaiak planteatzen dira eztabaidarako, guztia lau ardatzetan egituratuta: URBS, CYBER, CIVITAS eta POLIS. Hona gaiak:

(a) Euskal Hiri posibleak eta bere eszenario edo jokaleku prospektiboak; (b) krisiaren osteko ondorio estrukturalak eta Euskal Hirirako lurralde-eredu berri baten behararen eskaera zuzena; (c) hiri-erregioaren lurralde-unitatearen balizko kokapena, lokala eta globalaren ardatz horretan; (d) egungo Euskal Hiria eredu (LAG), desazkundera eta lehiakortasunaren paradigmen dialektikaren ulemen eta praxiak ekarriko lituzketen aldaketak; (e) ekoizpen-ereduaren transizioaren beharra eta bere erlazioa jasangarritasun, enplegu, talentu eta gizarte ekintzailetasun edo/eta aktibismoarekin; (f) hiri-birgaitzea, elkarrekintza-espazioen kudeaketa, eta gizarte-ereduak eta suspertzen ari den mikro-hirigintza; (g) kanpo-proiektzioarako hiritartasunaren kulturaren ekarpena; (h) konektibitate fisikoa eta azpiegituren arrazionalizazioa; (i) barne-administrazio herrigintza, euskal polisaren aniztasun eta pluraltasuna eta Euskal Hiria gobernantzarako balizko ereduak.

Ekarpen edota komentarioak igor.calzada@insis.ox.ac.uk helbidera bideratu ditzakezue zuzenean. Bestalde, aurren, Euskal Hiria 2012 kongresuaren berritasun moduan, gizarte-sare digitalen dinamizazioaren gehigarri bat proposatu dut, koherentzia horrekin kanalizatu daitezkeen parte-hartze energia guztiak. Horretarako, azaroaren 1etik aurrera, honako kanalak egongo dira, eztabaida areagotu eta Euskal Hiria guztiona egin dezagun:

Twitter: [@Euskal_Hiria](https://twitter.com/Euskal_Hiria)

Facebook: <http://www.facebook.com/EuskalHiria>

LinkedIn: http://www.linkedin.com/groups?home=&gid=4122589&trk=anet_ug_bm

<http://www.euskalhiria.org>

<http://www.basquecity.org>

Iragana, orain artekoa: <http://ttiki.com/42659>

Oraina, kongresua egituratu duen eduki zientifikoa:

<http://www.igorcalzada.com/download-here-basque-city-euskal-hiria-book-executive-summary>

Geroa, ikerketa-lan irekia: <http://about.me/icalzada>

Inoren jabetza izan gabe, denak barruan bilduko gaituen paradigma partehartzailea eta edukian kontsentsuz erditu ahal izango dugun Euskal Hiria lurralde-eredu eta marka berritua eraiki dezagun.

Euskal Hiria = Lurra + Nortasuna + Sareak

Lurrik gabe galdu egiten zara eta, nortasunik gabe, desagertu. Baina ataka horretan, sarerik ez baduzu, ez zara erlazionatzen; herdoildu, pitzatu eta ahanzturaren utopia heroikoan autoatse-ginkeriaren irrealismoan ez duzu ezer eraikitzen. Eta beti izango zara atzo.

@Euskal_Hiria Orain



* Igor Calzada doktorea, Oxfordeko Unibertsitateko (EB) Hirien Geroaldiko irakaslea, Ikerbasque-ko ikertzaile kide postdoktorala eta Aldiriko komite zientifiko kidea da.